

**UPPAren eta UPV/EHUren ARTEKO TUTOREKIDETZA
ERREGIMENEAN DOKTOREGO TESIAK EGITEKO
PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK
KONTRATATZEKO DEIALDIA**

(2018)

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-
betiko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 5en onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

UPV/EHUⁿ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2018)

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ERABAKI DU ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei lehenbailehen erantzuteko asmoz, eskatzen da kontsulta guztiak posta elektronikoz egiteko, helbide honetara idatzita: pre-postdoc.dgi@ehu.eus . **Mezuaren gaian hau jarri: "Ikertzaileak prestatzeko deialdia".**

Leioa, 2018ko abenduaren 27a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

I. eranskina

Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin- betiko zerrenda

Kodea	NAN	ESKARIA BERRIKUSTEAREN EMAITZA
PIFPAU18/01	18060020Y	ONARTUA
PIFPAU18/02	160864300636	BAZTERTUA
PIFPAU18/03	AWC399050	BAZTERTUA
PIFPAU18/04	16DZ89185	BAZTERTUA
PIFPAU18/05	16071359V	ONARTUA
PIFPAU18/06	208501878	ONARTUA
PIFPAU18/07	15CF20193	ONARTUA
PIFPAU18/08	45754529P	ONARTUA
PIFPAU18/09	16098444P	ONARTUA
PIFPAU18/10	71343484Z	ONARTUA
PIFPAU18/11	72528689Y	ONARTUA